

### H3 Hiri finken elkartzeko eta banantze-lizentzia.

<b>Saila</b>	Hirigintza
<b>Zer da / Zertarako da</b>	Adierazpen-izaerako administrazioko baimen hauek hiri finkak elkartzeko edo banantzeko aukera ematen dute.
<b>Nork eska dezake?</b>	Finkaren titularrak edo haren legezko ordezkariak.
<b>Aurkeztu beharreko agiriak</b>	1.Eskaera-orria, eskabide orokorrari jarraiki egina; bertan, finkaren azalera osoa eta bereizi nahi den finkaren azalera osoa adierazi eta azalduko da. 2.Eskatzailearen NANA. 3.Jabetza-eskriuraren fotokopia. 4.Gaur egungo eta etorkizuneko finken deskribapena jasotzen duten planoak aparejadore edo arkitektoak sinatua. Planoetan oinarritzko instalazioen hartuneak agertuko dira (ura, gasa, argi indarra eta telefonia) 5.Ondasun Higiezinaren Gaineko Zergaren ordainagiria edo katastroko erreferentzia.
<b>Non eskatzen da?</b>	<b>Udaletxeko sarrera erregistro orokorrean</b> (San Bartolome 2, astelehenetik ostiralera, 09:00etik 14:00era).  <b>OHARRA: Aurrez aurre teknikariarekin bildu nahi ez gero ordutegia astelehenetik ostiralera, 09:00etik 14:30era. Hitz ordua duen herritarrari emango zaio lehentasuna.</b> <b>Hitz ordua eskatzeko telefono bidez: 943 697320 hirigintza@ibarra.eus</b>
<b>Zenbat kostatzen da?</b>	Indarrean dagoen Ordenantza Fiskalaren arabera. 2016 73,43 euro.
<b>Prozeduraren epea</b>	-Zenbatetsitako epea: hilabete. - Legezko gehieneko epea: hiru hilabete. - Administrazio-isiltasunaren izaera: ez onartutzat..
<b>Araudi aplikagarria</b>	- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 38-40. artikulua eta lege bereko 207. artikulua eta hurrengoak. - Indarrean dagoen udal plangintza.
<b>Eskaera jaso ondoren jarraitu beharreko prozedura</b>	1. Eskabide-orria eta agiriak jasotzea, eskaneatzea, egiaztatzea eta erregistratzea. 2. Eskatzaileari kopia zigilatu bat ematea, ziurtagiri gisa. 3. Hirigintza Sailari bidaltzea.
<b>Geroagoko izapideen laburpena</b>	1.Txosten teknikoa egitea.Eskabidea aztertu eta analizatzea, eta hirigintzako araudiari ondo egokitzen zaion egiaztatzea. 2. Organo eskudunak ebazpena ematea. 3. Kontu-hartzailera Sailari bidaltzea, likidazioa egin dezan. 4. Interesdunari jakinaraztea.

	<p>5. IKUS OHARRAK: Baimena jaso eta interesdunak hiru hilabeteko epean egintza gauzatu dela dioen agiri publikoa Udalean aurkeztu beharko du eta Hiri ondasun higiezinaren gaineko zergan aldaketaren izapidetzea egin beharko du 2 hilabeteko epean..</p>
<b>Agiri lagungarriak</b>	<p>HIRIGINTZAKO ESKAERA ORRIA  Normalizatutako eskariaren inprimakia, hauek atxikiz:  U-4 ereduaren arabeko inprimakia  Inprimaki horiek hemen deskargatuz lortu ahal izango dira <a href="http://www2.gipuzkoa.net/wps/portal/gipuzkoa/ogasuna_edota_baimendutako_estankoetan">http://www2.gipuzkoa.net/wps/portal/gipuzkoa/ogasuna_edota_baimendutako_estankoetan</a></p>
<b>Nork onartu behar du?</b>	Alkatetzako dekretua
<b>Informazioaren balioaldia</b>	Araudia aldatzen den arte.
<b>Oharrak</b>	<p>Lizentzia emango da, baina eskritura publikoa Udalean aurkezteko baldintza etengarriaren pean; agiri hori lizentzia eman eta hurrengo hiru hilabeteen barruan aurkeztu beharko da, eta, hala egin ezean, lizentzia iraungiko da.</p> <p>Hiri ondasun higiezinaren gaineko zergan aldaketaren izapidetzea  Hiri ondasunak: U4 edo U7 ereduaren arabeko inprimakia</p>